

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bakioko Udala****2018ko trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko padroia**

Trakzino Mekanikozko Ibilgailuen ganeko Udal Zerga ordaindu beharrean dagozan udalerrri honetako herritarrei jakinarazoten jake ordaintzeko borondatezko epea zabaldu dala, beti be 2018ko Alkatetzaren uztailaren 6ko Dekretuaren bidez 2018ko zerga horren Errolda onetsi eta gero. Horrela bada, ostean ageri dira ordaintzeko modua, epea eta tokia.

Eta hori guztia 15 asteguneko epean jendaurrean ezarri da, zergapekoek aztertu eta, egokitzat jotzen badabe, erroldaren aurkako beharrezko erreklamazioak egin daiezan.

Iragarkia zergadunei jakinarazo jakela ulertu behar izango da, Zergen ganeko martiaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 100.3. artikkuluan ezarritakoaren arabera.

Zergadunen erroldan zeozer oker sartu bada edo sartu ez bada, edota bertan akatsen bat egon ezkerro, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango jake Bakioko alkateari, hilabeteko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik aurrera zenbatzen hasita.

ORDAINTZEKO LEKU ETA MODUAK**1. Borondatezko epean**

a) Epea: Zergaren zenbatekoa errekgaru barik ordaindu ahal izango da 2018ko abuztuaren 8tik urriaren 8ra, biak barne.

b) Ordaintzeko leku eta modua:

— Helbideratu bako ordainagiriak: etxera bialdu diran inprimakiak BBK-ko edozein bulegotan aurkeztu beharko dira.

— Helbideratutako ordainagiriak: Ordainketea Banku-erakunde zehatz baten bitartez ordainketa egiteko agindu daben zergadunen kasuan, horretarako adierazo daben kontuan zordunduko jake ordainagiria.

Imprimakia jaso ez edo galdu ezkerro, udal bulegoetara jo beharra dago.

Imprimakiak hartu ez izanak ez dau esan gura ez dala ordainketarik egin behar.

Zergadunek aurrezki kutxetan eta banku-erakundeetan helbideratu ahal izango dabez ordainagiriak.

2. Batearazpen bidean

Borondatez ordaintzeko epea amaituta, automatikoki hasiko da batearazpen epea, %5eko gainordaina ezarriz. Premiamenduzko erabagia jakinarazo eta hilabete bat igarota, gainordaina %20koa izango da eta, horrez ganera, berandutze-interesak kobrauko dira borondatezko epea amaitu zanetik aurrera, bai eta legezkatu leitekezan ganerako kostuak be. Ordainketea udal bulegoetan bakarrik egin ahal izango da.

Errekurtsioa ipini arren, horrek ez dau kobretako prezedurea geldiarazoko, betibe zorra bermatzen ez bada, legeak ezarritakoaren arabera.

Bakion, 2018ko uztailaren 6an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra